




# GARAI BERRIA NAFARROARENTZAT



ehbildu

▶ NAFARROAK ERABAKI



## Aurkibidea

|                                                                                                                          |           |
|--------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|-----------|
| <b>A)</b> Ariketa demokratiko etengabea. Guztion artean eredu berri bat eraikitzea .....                                 | <b>4</b>  |
| <b>B)</b> Demokratizazio-prozesurako eta arkitektura juridiko-instituzionalerako proposamen politikoa .....              | <b>5</b>  |
| <b>C)</b> Erabaki-agenda baten beharra .....                                                                             | <b>7</b>  |
| <b>D)</b> Agenda.....                                                                                                    | <b>7</b>  |
| <b>D.1</b> Gizarte-ikuskaritza. Alfonbrak altxatu behar dira .....                                                       | <b>8</b>  |
| <b>D.2</b> Herritarren parte-hartzea bultzatzeko berezko araudia .....                                                   | <b>8</b>  |
| <b>D.3</b> Eredu ekonomiko eta soziala .....                                                                             | <b>9</b>  |
| <b>D.4</b> Herritarren bizitza eta bizikidetzak demokratizatzeko mekanismoak. Aniztasunaren kudeaketa demokratikoa ..... | <b>10</b> |
| <b>D.5</b> Nafarroaren estatus politikoari buruz .....                                                                   | <b>12</b> |

## Sarrera

**N**afarroan ateak eta leihoak irekitzeko garaia iritsi da; zikloz aldatzeko unea, Erregimena amaitzekoa, eta demokratizazioari ekitekoa, bai arlo politikoan, bai sozialean, ekonomian, kulturean... Askatasuna arnasten hasteko eta Erregimenak eta haren ondorioek Nafarroako herritarren bizitzako alderdi guztietara ekarritako laino beltza alde batera uzteko garaia. Hori da gure konpromisoa, eta gure ekarpena egin nahi dugu egia bihurtzeko.

## **A) Ariketa demokratiko etengabea. Guztion artean eredu berri bat eraikitzea**

Helburua guztion artean eredu bat eraikitzen hastea da; Nafarroako herritarren gehiengoaren onerako eta mesederako eredua. Inoren aurka eraikiko ez den eredu bat; gizarte-justizia oinarri izango duena, eta gutxiengoaren arau-inposaketarekin amaituko duena, nafarron garaipen demokratiko bilakatuko dena.

Horretarako, akordio handietara iritsi beharko da, betiere printzipio demokratikoak errespetatuta, eta arau saihestezin eta negoziatzina –Nafarroaren etorkizuna Nafarroan erabakiko da– errespetatu beharko duen prozesuari ekin.

Nafarroako herritarren bizitzako eremu guztien demokratizazio-prozesua abiarazteaz ari gara. Demokratizazio-prozesua gizarte-justiziaren eta erabakitzeko eskubidearen bidetik egin beharreko ibilbidea da. Gudan eragina duten gauza guztien gainean askatasunez erabakitzea. Gardentasunetik eta ustelkeriaren aurkako atsedunik gabeko borrokatik, eredu sozio-ekonomikora. Zerga-politikatik, zerbitzu publikoetara; gizarte-eskubideetatik, administrazio-eredura. Hizkuntza-politikatik, eredu instituzionalera; enplegu-politikatik, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunera. Azpiegituretatik eta energia-politikatik, emakumeek beren gorputzekin zer egin erabakitzeko askatasunera; giza duintasuna bermatuko lukeen Oinarrizko Errentatik eta osasun publikoko eredutik, Estatuarekiko harremanen esparrura.

Baina, gauza ororen gainetik, proiektu guztiak baldintza-berdintasunean gauza daitezkeela bermatuko duen prozesua izan behar da. Eta horretarako, funtsezkoa da herritarren parte-hartzea eta erabakitzeko ahalmena. Nafarroak ez du behar zenbaitek “berritze demokratiko” deitzen dutena. Izan ere, Erregimenak bere pribilegioak bermatzen jarraitzeko gehiegi erabilitako kontzeptua da hori. Benetan behar duguna DEMOKRAZIA da, halaxe, letra handiz; egiazko demokrazia, Erregimenak herriaren ahotsa isilarazteko gainetik jarri dion berniz babeslerik gabe. Boterea herritarren eskutara itzuli behar da.

Indar politiko guztien erantzukizuna da herriak erabaki dezan bermatzea. Talde, elkarte, sindikatu eta herritar guztien erantzukizuna da erabakietan parte hartzea. Bakoitzak bere ikuspegia, proiektu politikoa, gizarte-proiektua, eta jasaten ari garen gizarte-arazo larriei eta askatasun-gabeziari aurre egiteko neurriak ekarrita. Guztion erantzukizuna da, eta baldintza berdintasunean gauzatu behar dugu erantzukizun hori, pertsona eta herri gisa aurrera egitea galaraziko diguten egitura zaharkitu eta atzerakoirik gabe. Esparru zahar, zurrun horrek, politika ulertzeko modu zaharkitu horrek, herritarren eta erakundeen arteko harremanak ulertzeko modu berri bati utzi behar dio lekua, politika ulertzeko modu berri bati. Atea ireki behar dio Nafarroa berri

bati, guztion artean irudikatu, definitu eta eraikiko dugun herri bati.

## B) Demokratizazio-prozesurako eta estatusaren aldaketarako proposamen politikoa

Proposatzen dugun demokratizazio prozesuak Nafarroako herritarren bizi-baldintzak hobetzeko helburua du, baita Nafarroako gizartearen ongizatea bermatu eta justizia soziala zein erabakitzeke eskubidearen bidetik aurrera egitea ere. Nafarroan hobeto bizitzeko, alegia. Aldi berean, demokratizazio-prozesuak herritarren ahalduntzea ekarri behar du, bai funtzionamendu demokratikoari dagokionez, bai soberaniaren berreskuratzeari dagokionez ere.

**Bultzatu nahi dugun demokratizazioa eta berregituratzeko prozesua ez dira soberanisten eta independentziaren aldekoen auzia soilik, beste indar eta sektore batzuek ere partekatzen dute xede politiko bera.** Hortaz, aniztasun horri forma emateko garaia iritsi da, atxikimenduak sortzeko gai diren proposamenak eginda eta gauzatuta, aniztasunetik, bai, baina indarrak batzeko eta elkarrekin lan egiteko konpromiso sendoarekin.

Hortaz, gure eskaintza demokratizazio-prozesuari ekiteko herritar guztiei eginiko proposamena da, zeinetan herritarren arteko eztabaida eta adostasuna izango baita jardueraren ardatza.

Gure proposamena nafar guztiei zuzendutako proposamena da. Konplizitatez eta adostasunez beteriko prozesu baterako gonbidapena, zeinetan abiapuntua Nafarroako herritarren erabakitzeke gaitasuna eta eskubidea izango baitira, eta, azken helburua, guztien ongirako esparru eta eredu baten sorrera. Uneoro Nafarroako gizartearen borondatea oinarri izango duen prozesua.

Presarik gabe baina denbora galdu gabe gauzaturiko prozesua, gizarte-eztabaidan, proiektuen kontrastean, adostasunen artikulazioan eta erabaki-hartzean oinarrituriko etengabeko ariketa demokratikoa. Eta ahalegin horrek kultura politiko berria eskatzen du. Herritarrak protagonista dituen kultura, bai diseinuan, bai prozesuaren garapenean, baita erabakiak hartzeko gaitasunean ere.

Eta hori hala izanik, EH Bilduk ez du eman beharreko urratsen eskema zurrin eta xehaturik proposatuko. Uste dugu indar politikook rol aktiboa hartu behar dugula halako prozesu baten diseinuan eta gauzatzean, baina ez rol eksklusiboa. Eta hori hala izateko ezin gara zurrinak izan, edo esku-liburu zorrotzak idatzi; batetik, ideia argiak izan behar ditugu, eta bestetik, entzuteko, ikasteko eta batzeko gaitasuna.

Beraz, proiektu guztiek tokia izango duten ariketa baterako metodo eta ibilbidea da proposatzen duguna. EH Bilduk nahiko luke bide nafar hau, prozesu propio hau, Euskal Herriko beste bi errealitate administratibo eta soziologikoen prozesuekin bat etor dadin, EAE eta Ipar Euskal Herriko prozesuekin hain zuzen ere. Betiere, urratsak eginez independentziaren helbururantz. Beste proiektu eta ikuspegiek zilegitasun eta aukera berdina izan behar dute, eta horien arteko **erabakia, noski, herritarrena izango da**. Euskal Herria behetik gora eraiki nahi dugulako eta oinarri argi batzuen gainean: anexionik ez, barne zatiketa sozialik ez, hierarkizaziorik ez. Izan ere berreraikitze-prozesu horretan **aniztasuna ez baita baztertu beharreko arazoa, baizik eta adimena erabiliz kudeatu beharreko berezko ezaugarri eta balioa**.

Demokratizazio-prozesuaz eta arkitektura juridiko-instituzionalaz hitz egitean, politika demokratikoaren funtsezko alderdiaz ari gara: erabakitze eskubideaz. Baina, zer erabaki, nork erabakiko du, zergatik? Galdera horiek interpretazio ugari izan dituzte, eta, bereziki, Erregimenetik gidaturiko haustura bat, Nafarroaren eta Euskal Herri osoaren subiranotasuna berreskuratzeko saiakerak oro geldiarazteko. Erantzunak gardenak eta zehatzak izan behar dira:

- **Prozesu horretan erabakiaren subjektu Nafarroako herritar guztiek izan behar dute.**
- **Erabakiaren objektua: izan nahi duen bizikidetzaz-eredua, hau da, bere estatus juridikoa eta politikoa, bere erakunde-arkitektura, bere eredu ekonomikoa eta soziala, eta, nola ez, beste euskal lurraldeekiko harremanen esparrua, edo gaur egun Espainiako estatuarekin dituen harremanena.**

Hobekuntza eta horren ondoriozko egitura instituzionala iruzur handia izan dira nafar herritarrentzat. Hala ere, foraltasuna eta haren erakunde espezifikoak galdutako subiranotasunaren aztarnak dira, berezko politika-kultura baten eta euskal probintzia guztien instituzionalizazio-prozesu baten hondarrak. Beraz, egun Madrilgo aginduei lotuta dauden erakunde horiek, herri honek bere etorkizunaren jabe izateko eta berezko estatusa edukitzeko duen grinaren adierazpenak ere badira, aldi berean.

Demokratizazio-prozesuaren bitartez, herritarrak erakunde horien jabe bilakatu behar dira (legebiltzarra, gobernua, udalerrien batzordea, kontzejuak, eta abar). Hau da, erabakiak hartuta gaitutako dugu Hobekuntzaren iruzurra, eta, erabakiak hartuta aterako diogu etekin guztia Nafarroako politika-kulturaren potentzialari, eta hala zentzu demokratizatzailea emango diogu Foraltasunari. Erabakitze eskubidearen jabe egingo gara.

## C) Erabaki-agenda baten beharra

Demokratizazio-prozesua, berez, erabaki-agenda da, errealitatea eraldatzen duten neurri zehatzen agenda, Nafarroa berria eraikitzea ahalbidetuko dutena, Erregimen zaharra, zaharkitua eta antidemokratikoa atzean utzita.

Agenda da aldaketa sakona nahi duten indar politiko, sozial eta sindikal guztien artean josi beharreko akordio-sarearen eta konplizitatearen oinarria. Erabakien agenda, bestalde, eragile horien eta hartzen duten estrategiaren gaitasunaren, konpromisoaren eta eraginkortasunaren isla izango da.

Era berean, eta uneoro prozesu ireki bat planteatzen ari garela eta aldaketak eta bilakaerak izan ditzakeela aintzat hartuta, erabakiak hartu ahala joango gara ikasten, bilakatzen eta guztion artean sortzen kultura politiko berri hori, ezinbestekoa herritarren parte-hartzea izan dadin prozesuaren onbidearen gakoa eta bermea.

Proposatzen duguna prozesua da, eta berau garatzeko metodoa. Halaber planteatu dugu erabakiak hartzea herritarrei dagokiela. Baina hanka-sartze itzela litzateke demokratizazio-prozesu bat kontsulta bakar batean erabaki behar dela pentsatzea. Prozesu horrek hainbat kontsulta beharko ditu, baita beste erabaki batzuk eta zuzeneko demokrazia egiteko beste modu batzuk, beste urrats zehatz batzuk, eta abar ere. Tresna berriak eta berritzaileak eduki beharko ditu, eta egun batean estatu-egitura bilaka litezkeen egitura berriak sortu beharko ditu. Laburbilduz, herritarrei eginiko kontsultak ezinbestekoak dira; herritarren botoa da oinarria, baina bozkatzea edo kontsulta egitea ez da erabaki demokratikoak hartzeko modu bakarra.

## D) Agenda

Zenbait mugarri planteatu eta adostu behar ditugu, haiekin eta erabaki sektorial batzuekin batera, demokratizazio-prozesuaren oinarriak ezarri eta ibilbideari ekiteko. Ibilbide horretan, herritarrek gero eta botere gehiago eskuratu behar dute.

Proposatuko ditugun mugarriak irekiak izango dira beti, eta hortaz, eztabaidagarriak eta guztion artean adostu beharrekoak, baina, gure ustez oinarri-oinarritzkoak dira erabakitzeko eskubiderako ibilbide luze eta berritzailea diseinatzeko. Ez dugu denbora-mugarik ezarri nahi, baizik eta etengabeko jarduera bat, Nafarroako errealitate soziologikoari egokitua. Prozesu horretan ez da inor atzean geratu behar. Etengabeko arreta eskaini behar diogu horri, eta kezka horren arabera ezarri erritmoak eta



egokitzapenak. **Nafar bide propioaz ari gara**, bere erritmo espezifikoarekin, dagozkion berezitasunekin, mekanismoekin, zehaztasunekin, formulazioekin, akordioekin, konpromisoekin eta erabaki-uneekin.

Aurrez esan bezala, demokratizazio-prozesuak integrala behar du izan, eta Nafarroako herritarren bizitza politikoaren, ekonomikoaren eta sozialaren alderdi guztiei eragin behar die. Jarraian aipatuko ditugu erabakiak hartzeko orduan metodoz aldatu beharreko atal batzuk. Aldaketa hori beharrezkoa da herritar guztiek parte hartu ahal izateko. Gure asmoa ez da posizioak edo programa zehatzak ezartzea, parte-hartze eta demokratizazio mekanismoak baizik.

## D.1 Gizarte-ikuskaritza. Alfonbrak altxatu behar dira

Erregimenak utzitako herentzia ezin da edonola onartu. Nafarroako herritarrek gertatu dena jakin behar dute. Xahututako edo ostutako dirua nafarrarena da, erakundeak nafar herritarrenak dira, eta haiek gertatutako guztia jakiteko eskubide osoa dute. Erantzukizunak mugatu egin behar dira eta ondorioak onartu. Herriak ikuskatu behar du eginiko ibilbidea eta egin beharrekoa.

Gizarte-ikuskaritza sortzea proposatzen dugu, gizarte-mugimenduen ordezkarien, legebiltzarkideen, profesionalen eta herritarren artean zuzenean aukeratutakoa. Haren lana hainbat gairen inguruan gertatutakoa argitzea izango da: CAN, bizi-baldintzen degradazioarekin gertatutakoa baita azpiegitura handietan diru publikoaren xahutzea (AHT, Reyno Arena, Los Arcoseko zirkuitua, ezkutuko bidesariak...) ere.

Baina haren lana ez da iraganeko kontuetara mugatuko, Nafarroako Kontuen Ganberaren tresna osagarria ere izango da, erakundeen jarduera ikuskatzeko orduan, ustelkeria prebenitzeko eta eskubideen urraketa galarazteko.

**Zor publikoa.** Ikuskaritza egin behar da, eta zehatz-mehatz jakin nola iritsi garen egoera honetara. Baina, horretaz gain, gizarte-eztabaida bat abiarazi behar da eta zorrarekiko hartu beharreko jarrera erabaki (ezeztatzea, birnegoziatzea...).

## D.2 Herritarren parte-hartzea bultzatzeko berezko araudia

Demokratizazio-prozesu batean aurrera egiteak berekin dakar mekanismo juridikoak eta herritarren parte-hartzea arautuko dituzten berezko legeak izatea. Bai hauteskunde-prozesuei dagokienez, bai parte-hartze mekanismoei dagokienez ere; eta parte-hartze mekanismo gorena denari dagokionez ere, hau da, erreferendumari dagokienez. Beraz, gure ustez Nafarroako herritarrek nahitaez egituratu eta bideratu behar dute beren legea. Eta Nafarroako herritarrek hartu beharko dute, noski,



aurkezten den edo diren lege proiektuen gaineko erabakia.

Era berean, gardentasun lege berria ezarri beharko da, bai eta herritarrek jarduera instituzionala ezagut dezaten bermatuko duen funtzionamendu eraberritua ere. Azken hau ezinbestekoa da herritarren benetako parte-hartzea bermatzeko.

## D.3 Eredua ekonomiko eta soziala

- **Guztiona dena defendatzea. Komunala, zentzu zabalean**

Guztiona dena ezin da saldu, ezin da oparitu, ezin da suntsitu. Publikoa dena, guztiona, administrazioa bera da, zerbitzu publikoak (hezkuntza, osasuna...), ondare materiala eta ez-materiala. Herritar guztionak dira, ez gutxi batzuenak. Eta guztiona dena zaindu egin behar da, blindatu, bai politikoki, bai juridikoki, bereziki osasuna, hezkuntza, baita, oro har, zerbitzu publikoak ere.

- **Pertsona guztion eskubideak, ekonomiaren xedea**

Nafarroan pertsona guztien oinarritzko eskubideak eta bizi-baldintzak bermatzeko adina aberastasun badago. Enplegu edo pentsio duinerako eskubidea, etxebizitza eta kalitatezko zerbitzu publikoak izateko eskubidea politika ekonomikoa eta soziala gidatzen duen lehentasunezko helburua izan behar dira. Horrela jaso beharko litzateke, legez, Nafarroako Estatu politiko berrian.

Ezinbestekoa da Espainiako Estatuarekin ditugun harreman ekonomikoak zorrotz aztertzea, baita Nafarroaren etorkizunerako eredua komenigarriena aztertzea ere.

- **Aurrekontuei buruzko politika**

Aurrekontu-politika ezin da gehiengo instituzionalen mende egon soilik, talde politikoen arteko adostasun edo desadostasunen mende. Aurrekontuez ari garenean, herritar guztien baliabide ekonomikoak –eta ez Gobernu batenak– zertan erabiltzen ari garen esaten ari gara. Hortaz, arrazoizkoa da herritarrek beren iritzia ematea eta, nolabait, erabaki horietan parte hartzea.

Sarri hitz egin dugu aurrekontu parte-hartzaileez, norabide horretan emandako urrats gisa. Baina, argi dago, orain arte ditugun mekanismoekin, herritarren zati txiki batek –gizartearekin konpromiso sendoena duenak– baizik ez duela gai horrekiko interesa erakutsi eta parte hartzea eskatu, agian oso konplexua dirudielako.

Hori horrela, uste dugu parte-hartzeari ateak ireki ez ezik, hura bultzatuko duen ibilbideari ekin behar diogula. Hasiera-hasieratik, hura lantzeko gizarte-mugimenduetara jo behar da; prozesuaren erdian, gizarte-politikei dagozkien erabakiak hartzeko bideak ireki; amaierara arte, herritarrek politika horiek berretsi



arte (udalek lehenik, eta herritar guztiek, azkenik), betiere mekanismo berritzaileen bitartez. Zergak ordaintzen dituztenek erabaki behar dute dirua non gastatu.

- **Zerga-politika**

Zerga-politikak mugatu eta baldintzatu egiten du Nafarroako herritarrek beren premiei aurre egiteko dituzten baliabideen zenbatekoa. Bereziki, zerbitzu publikoak defendatzeko eta hobetzeko. Hortaz, zerga-politikaren inguruko erabakiak demokratizatzen joan behar dira pixkanaka, herritarren parte-harteari irekitzen. Horrek, adostasunez gain, erabaki horiek hartzeko mekanismo berriak ezarri beharra eskatuko du.

Are gehiago, gure ustez zerga-politikak epe luzeko norabidea behar du, baita epe motzeko neurri batzuk ere. Ziklo luze baterako norabide horretan, herritarren zuzeneko parte-hartzea ezinbestekoa litzateke gutxieneko berme demokratiko gisa.

- **Finantza-sistema**

CAN kutxa xahutu ostean, beharrezkotzat jotzen dugu Nafarroak bere finantza-erakunde publiko bat izatea. Hura sortzeko (ala ez sortzeko) finantza-ereduari eta bertan beste erakunde batzuk –banku etikoak edo kreditu kooperatibak– har dezaketen rolari buruz eztabaidatu eta erabakiak hartu beharko lirateke.

## **D.4 Herritarren bizitza eta bizikidetzaren demokratizatzeko mekanismoak. Aniztasunaren kudeaketa demokratikoa**

- **Nafar hiritartasuna**

Nafarroan bizi diren pertsona guztiak eskubide indibidual, kolektibo eta sozial berdinak jabe dira.

- **Herritarren oinarritzko eskubideak kudeatzea eta arautzea**

Eskubide eta askatasun demokratikoak baliatzeko bermeak, ezin dira Espainiako gobernu-ordelkaritzaren esku geratu; izan ere, Espainiako Gobernuak horixe baliatu baitu adierazpen-askatasuna zapaltzeko eta Erregimenaren aurka dauden herritarrei isunak jartzeko, zigortzeko eta isilarazteko. Hori dela-eta, hori kudeatzeko beste esparru eta modu batzuk planteatu eta erabaki beharko dira. Esparru horiek Nafarroako gizarte osoari erantzun beharko diete, eta moduak adierazpen-askatasunaren errespetuan eta bermean oinarritu beharko dira.

Arlo horretan, herritarren segurtasunarekin eta askatasun demokratikoekin loturiko guztiaz Nafarroako Gobernua arduratu dadin proposatuko dugu; beraz, arlo horretan eskumen erabatekoa izan beharko du.

- **Hizkuntza-politika**

Nafarroak bere baitan duen aniztasunari erantzun behar dio, eta adierazpen- eta garapen-bideak eskaini. Erregimenak gaur arte aplikaturiko hizkuntza-politikak bazterkeria besterik ez du ekarri, eta Nafarroak berezko duen kultura- eta hizkuntza-nortasuna ukatu ditu, eta etengabe jazarri du gure hizkuntza, euskara, daukan balio ukaezina aitortu gabe.

Gure ustez, Nafarroak hizkuntza-politika arautuko duen lege berria behar du, Euskara nafar jendartearen ondare gisa aitortuko duena, Euskararen Legeak inposaturiko zonifikazioa gaindituko duena, euskara ikasteko eta euskaraz bizitzeko eskubidea bermatuko duena. Baina, beste arlo batzuetan bezalaxe, lege berria osatzeko, ez da nahikoa talde politikoen arteko adostasuna, edo gobernuaren erabakia. Erabaki hori ezin da uneko Gobernuaren eskuetan egon soilik, ezta lau urteren buruan alda daitekeen gehiengo parlamentarioaren eskuetan ere. Lege berria gizarte-eztabaidaren ondorio izan behar da, eta eztabaida horretan lehentasuna izan behar dute euskararen defentsa-taldeek eta hezkuntza-komunitateak, oro har. Horregatik, eta aniztasun hori bildu behar duenez, legea adostea ezinbestekoa dela uste dugu, eta, horretarako, **Nafarroako herritarrek berretsi beharko dute hizkuntza-politika arautuko duen legea.**

- **Espetxe-politika**

Epe laburrean, Nafarroak espetxe-politikaren gaineko erabateko eskumena lortu behar du.

Epe ertain-luzean, justizia penalaren eredia definitu eta erabaki beharko litzateke, duen konplexutasun guztia aintzat hartuta.

- **Polizia-eredua**

Polizia-ereduari buruzko eztabaida bati heltzea, eta, lehen urrats gisa, gaur egun Nafarroan jarduten duten polizia-indarren berregokitzapen eta daukaten neurriaren egokitasuna aztertzeke prozesua adostea eta erabakitzea.

- **Sinboloen legea**

Nafarroako herritarren eta haien elementu adierazgarrien aniztasuna errespetatuko duen sinboloen lege berri bati buruzko eztabaida abiaraztea, gizarte osoari hitza emanda. Lege irekia eta ez murriztailea, bizikidetza bermatuko duena eta guztion artean iruditeria kolektibo eta komuna sortzen lagunduko duena, herritar guztiak eroso egon daitezen. Lege horrek ere herritarren berrespena beharko du.

## **D.5 Nafarroaren estatus politikoari buruz**

**D.5.1)** Foru Hobekuntzaren esparruan bertan, Nafarroako erakundeei eskumen subiranoak ematea proposatuko dugu. Horrela, bizitza politikoa, ekonomikoa, soziala, kulturala, linguistikoa eta arlo guztietako politika propioak erabakitzeko.

**D.5.2)** Gizarte-eztabaida sakon eta zabala diseinatzea, adostea eta gauzatzea, zeinaren helburua Nafarroako estatus politikoa formulatzeko eta erabakitzeko metodo bat zehaztea izango baita. Erabakitzeko eskubidean oinarrituta, Nafarroako arkitektura juridiko-instituzionala eta bere eredu sozio-ekonomikoaren ardatzak zehaztuko dituen estatus berri bat.

**D.5.3)** Aipatu gizarte-eztabaidan lortuko diren adostasunen arabera, Estatus politiko berrirako parte hartzea eta erabakitzeko moldea arautuko duen “Oinarrien Legea” egitea. Erabakia Nafarroako gizarteari dagokio eta, beraz, erreferendum baten bitartez ebatzi beharko litzateke.

**D.5.4)** Beranduago, eta adostasuna zein gizarte kohesioa bermatze aldera, beste euskal lurraldeekiko harremanak eta haien arteko artikulazio juridiko-instituzionala erabakitzeko kontsulta egitea proposatzen dugu. Beti ere Nafarroako aniztasuna eta berezitasuna errespetatuz, eta bere erabakitzeko ahalmena bermatuz.

Nafarroako gizarteak aire freskoa eta egiturazko aldaketak behar ditu oraintxe bertan. Bustitzeko garaia da, bakoitzak duen onena ematekoa, nafar herritarrek eta haien etorkizunak merezi eta behar baitute. Gure aldetik, Erregimenari aurre egin diogun indar berarekin egingo dugu apustu alternatiba politiko eta sozialaren alde, aldaketa sakona bermatzeko eta demokratizazio-prozesua bultzatzeko. **NAFARROAK ERABAKI BEHAR DU.**